

ALEMAÑDAR BAT BERMEO'N

ZELAN BERMEO'RA

Zelan eldu ete zan Bermeo'ra Klaus Soth Alemandarra?

Gitxik ezagutzen dabe Klaus. Ogei ta amazortzi urteko gizon sendoa da, arotza, eta Bermeo'n egiten dau lan geienetan, beste batzutan Bilbo'n eta Markiña'n be bai.

Markiña'koa da bere emaztea, Lourdes.

Klaus Soth-man gure girora osoan sartu da eta euskalzale ornidua da.

Gaurko bere guraria da, benetan gurari ederra, euskerea ikastea eta asi be egin da, berak diñoan lez, Euzkadin biziteko garrantzi ta ardura aundiko gauzea dalako.

Klaus gizon on bat da, ona ta baketsua, edozein giza-taldetan lagun lez sartzeko modukoa eta bere nortasun adikor, agiri eta zabalagaitik, adiskidetasuna lortzen dau eta Euskalerrian biziteak oso-osoan lilluratzen dau. "Euskalerria, Bizkaia, neure aberria da" esaten dau.

IBILLALDIAK

Esan dogun lez, Alemandarra da, Beeko Sajonia'n dan Oldenburg errikoa, Bremen'etik urrean.

Oldenburg 130.000 biztanle inguruko erria da eta lugin eta aberedunen giroko azoka ederrak egiten dira erri aretan. Sale-rosketarako ospetsuena Frisonarren endako beiak izaten dira.

"Orain zortzi urte dirala, San Vicente de la Barquera'n oporraldi baten nengoala Lourdes nire emaztea ezagutu neban. Gero urte bi igaro ondoren, Markiña'n eta Oldenburg'en alkar ikusten genduan eta Markiña'n ezkondu giñan 81n. urteko dagonillean. Gero Alemania'n igaro genduzan urte bi eta bein betiko Bilbo'ra etorri giñan eta emen alemea eta ingles ikastaldiak emoten nebazan".

ONTZIGINTZAN

Baiña Klaus'ek bere ikasirik bizenak goleta esaten jaken itxas-ontzietan daukaz. "Nik arotz-lanean egiten neban bear aste-azkenetan, bost illebetean munduari bira emoteko asmoz.

Azkenean asmoak ez euskun ondo urten eta ontzi-lana itzita, gaur Bermeo'n daukadazan lagunak ezagutu nebazan eta 85n. urtean asi nintzat lanean Bermeo'n ontziak konpontzen".

Ez ete eban izango Euskalerrian biziera barri orretarako eragozpenik?

Egia esateko, ez eukan asmakizun-arloan arazo aundirik, betirako bertokotu baiño lenago egotaldi batzuk egin ebazan eta orain guztiz pozik bizi da.

EUSKERIA

"Emen Alemania'n baiño geiago ibiltzen naz —diño— ango bizitzea ez da bardiña.

Euskerea ikasteko gogoa be ba-daukat, orain dakidana oso gitxi da-ta, berba batzuk ulertzen dodaz eta edatetxe edo jatetxeetan zerbait eskatu neike. Guztiz ardurazko gauzea da nitzat euskerea ikastea, izkuntza eder au parra-parra egiten jakitea, euskerea egiten dan errian bizi nazalako. Orregaitik ikastegi batera sartzeko asmoetan nabil".

ZEZENAK

Iruña'ko San Fermiñak jakoz atsegin. Urtero artzen dau egun orretan bere zama-berebil txikia eta gogotsu joaten da Iruña'ra. "Aurten, ain zuzen, Bermeo'ko mutil batzuk lagun dauzala joan naz eta eurakaz atsegiñez igaro dodaz 89'ko San Fermiñak. "Lezenen aurretik ez da joan, ori arriskutsua dala uste daualako baiña zezen-plazara bai joan da zezenketa ikustera.

"Barrero diñot, Euzkadi'ko Jaunerria dan Bizkai onetan, pozik bizi naz. Ondo jaten dot eta emengo janariak atsegin jataz: indaba gorriak, urdai-zati aundiak ta lukainkakaz gertatuta, atun egaluzea, bisigua, lebatza ta makallau-saltsa".

Gure Bizkaia, Jaunerri eder eta aberatsa, Naparroa lez, Suiza'ko kantoien antzera alkartuta egon bear da, ez orain dagozan lez, (Gipuzkoa ta Araba'gaz buztarturik. Errez al dogun aurrerapenik, ezin dogu egin, lortu. Au bai ba-dala tamala!

LETONA'k

